

Joxe Migel
Esnaola



«Euskaldunak Potosin jaun eta jabe izan ziren hiru gizalditan»

Frantziskotarra, joan den mendearen erdi aldera Boliviara joan eta Arantzazuko ama birjinaren aztarna ateratzen hasi zena Potosin. Berrogei urte geroago, liburura jaso dizkigu tantaka-tantaka bildu dituen jakingarriak: *Arantzazuko Andre Maria Potosi hirian*.
Merezimenduzko saria Joxe Migel Esnaolari.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Maddi Soroa

1545. Bernat Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae*. Euskarazko lehenengo liburua. Urte berean, Potosin (Bolivia) bestelako lanetan dira: zilarra aurkitu zuten... Bertako indio batek aurkitu ere.

Hor dago ba kontua! Orain arte hori esan izan da, alegia, esploratzaile baten ondoan zihoan indioak aurkitu zuela zilarra. Baina horri beste irakurketa bat ere egin lekiok. “Aurkikuntza” baino lehen ere Potosin herritxoak zeuden.

Nortasun agiria

Joxe Migel Esnaola Garmendia (Azpeitia, Gipuzkoa, 1934). Oñatz auzoko Artxabaletazarra baserrian jaio zen, zazpi senideko familian. Laugarrena izan zen. Fraide joan zen gazterik, beraren anaia Anastasioren urratsei jarraiki. Frantziskotar askoren ohiko bidea egin zuen: Arantzazu, Foru, Zarautz, Erriberri, Arantzazu. Garai hartakoak ditu lehen idazlanak, frantziskotarren aldizkarietan argitaratuak. 1960an apaiztu eta Amerikan zen handik urtebetera. Hamabi urte egin zituen Copacabanan (Bolivia), Potosira joateko baliatu zuen garaia, hain justu. Ondoren, hiru urte igaro zituen Santo Domingon (Dominikar Errepublika). Hantxe lizentziatu zen Filosofia eta Letretan. Handik, atzera buelta etxera: irakasle izan zen Zarautzen, frantziskotarren etxean, eta Herri Ametza ikastolan, Donostia eta Pasaia artean. Hamabost urte egin zituen ikastolan, euskara irakasle, 1991n odol isuria izan zuen arte. Tolosan da harrezkero. Ezina ekinez egina, Potosiko historiaren atal iluna jarri digu agerian *Potosiko Arantzazuko Andre Maria Potosi hirian* idatzirik.

Haiek bazekiten han zilarra zegoela, baina ez zioten diru erabilera ematen. Zilarra, eta urrea, apaingarri ziren. Espainolek, aldiz, ase ezineko irrika zuten, beti galdezka: “Non da urrea? Non, zilarra?”. Indioek ez zekiten espainolek zertarako nahi zituzten. Orduko hartan, bi indio gertatu omen ziren Potosiko zerroan, eta haietako batek zilarra non zegoen esan omen zien espainolei.

Horiek 1545eko kontuak.

Bai, eta indioetako batek zilarra non zegoen espainolei esan, eta mesedeak jaso omen zituen. Beste indioak ere zer edo zer nahi, ordea, eta aurrekoa salatu. Iskanbila izan zena ez da dudarik.

“Potosi meatze-hiri tipikoa zen, aberatsa eta garestia oso, bizimodu mugitukoa, indarkeria eta kalapitaz betea; kronikariek diotenez, iskanbila eta nahaspilek hautsia, lehen urteetan oldartsua eta mutiria”: historialariaren hitzak dira, Joseba Intxaustik zure lanaren sarrerara ekarriak.

Ikaragarrizko iskanbila, seguru! Hogei urtean, ezer ere ez izatetik 100.000 biztanle izatera iritsi zen. Ezin irudikatu zer izan zen hura! Garai hartako Amerikako hiririk handiena eta inportanteena izan zen Potosi! Hango zilarra oso ezaguna egin zen Europan. Mexikon ere bazen zilarra, baina Potosiko laurdena ere ez! Espainiak urtean zuen aurrekontuaren erdia Potosik egiten zuen. Pentsatu zer zen hura!

● Joxe Migel Esnaola

Espainiarrak han, eta euskaldunak ere bai haien artean...

Jakina, ba. Garai hartan horrela zen, euskaldunak espainolekin batera zebiltzan.

Ez alferrik! Azkar eratu zuten elkartea euskaldunek, Arantzazuko Andre Mariaren Kofradia.

Arantzazu zaleak ziren, oso, hangoak. Tartean zen Lazarraga, oñatiarra, Verasategi anaiak ere hangoak... Oso elkarte berezia, indartsua. Euskaldun haiek oso jende ikasiak ziren, legelariak ziren batzuk, meatzaritzan adituak, berriz, beste batzuk. Hemen burdina ateratzen ikasita zeuden, Legazpi aldean eta, eta han zilar ateratzen trebatu ziren. Horrek Espainiako errege Karlos V.aren saria jasotzea ekarri zuen, izendapen bidez, esaterako, eta beti ageri dira euskaldunak Potosiko aginte organoetan.

Liburuan diozunez, eta dokumentu eta eskuizkribuen arabera betiere, kofradiakoek behin ere ez dute esaten espainiarrak direnik. Aitzitik, honakoak baliatzen dituzte: "nazion vasca", "nazion vascongada", "vizcaínos", "señorío de Viscaia, Alaba, Reino de Navarra

eta Santander"... Abertzaletasuna ez da Sabino Aranak asmatua...

Ez ba! "Foru" hitza agertzen da garai hartako idatzietan. Euskaldunek beren nortasuna zuten, kontziente ziren horretaz. Eta Espainiako agintariek ere errespetatu egiten zituzten. Bestalde, kofradia hark bereizketa handia egiten zuen euskaldunaren eta espainolaren artean. Nik garai hartako Potosiko Udalaren dokumentuak aztertzeke aukera izan dut. Hogei bat tomo bai, behintzat. Han garbi ageri da espainolek euskaldunetaz zieten inbidia. Euskaldunek kontuan hartu behar izaten zuten hori. Ez zituzten kargu guztiak beraientzat hartzen. Egia da, dena den, egoera larriren bat gertatzen zenean, euskaldunak zirela beti buru.

Euskaldunak Potosiko buru... 1622 arte. Bikuñatarren (gaztelarren eta andaluziarren jatorrikoak) eta euskaldunen arteko etsaigoa areagotu zenean, akabo.

Aurretik zetorren kontua. 1610 aldera agertu zituzten espainolek lehenengo ezinikusiak. Inbidia ez ezik, boterea hartzeko asmoa ibili zuten gogoan. Azpizoko handiak egin zituz-



ten espainolek. Potosiko aginte karguez jabetzeko baldintzak aldatu, adibidez. Euskaldunen kontra hartutako neurriak ziren. Borroka aitzakiak bilatu zituzten. Orain gertatzen zaigun bezala, alegia. Hamar urtean asko itsustu zen hura. Gerra zikina izan zen, eta hildakoak ere ez gutxi, harik eta Espainiako Gobernuak hura etenarazi zuen arte. Gero, ordea, euskaldunak jabetu ziren berriz Potosiz. Horrela segitu zuen horrek 1826 arte. Euskaldunak jaun eta jabe izan ziren –maila batean, behintzat–, Potosin, hiru gizalditan.

Kofradiaren kontrako erasoak aztergai dituzu liburuko atal batean. Zenbait hilketa ere kontatzen dituzu. Joan Okendorena, adibidez. Arrasatekoa zen Okendo...

Bai. 1634an hil zuten, Kandelario egunez, goizean, Matakan. Bikuñatarrak zetoziola jakinarazi ziotenean San Pedro elizan babes-tu zen. Hantxe gorde ziren Joan Okendoren ingurukoak ere. Bikuñatarrak etorri eta eliza atarian bertan hil zuten.

Eta Verasategitarrek?



Kitxuaz, aimaraz

“Berrizatzaile lanetan jarduten du Potosin Luis Osvaldo Cruz Llanosek. Asko lagundu dit. Liburuaren atarian gaztelaniaz eta kitxuaz idatzi du. Potosin, hala ere, kitxua eta aimara ere hitz egiten dute bertakoek eta, nik, Agur Maria jartzea erabaki nuen liburuan, aimaraz. Hango katezismo batetik hartu nuen. Osvaldok testu bat kitxuaz, nik Agur Maria aimaraz. Paulo Agirrebaltzategi editoreari erakutsi eta: ‘Oso ondo, oso ondo. Honek hire liburuak adina edo gehiago balio dik’. Hori esan zidan!. Erantzun nion: ‘Hi, aizak, gehitxo esatea ez al da hori?’”.

Verasategi horiek bost senide ziren. Euskaldunen artean aipu handikoak, oso ezagunak. Domingo, adibidez, anaietan nagusia, zen argiena. Agirietan irakurri dudanez, hark zer esan, huraxe egiten zen. Asko balio zuena izan, nonbait, eta botere handia zuena.

Geronimo nola hil zuten ikaratzekoa da.

Bikuñatarrek begiz jota zeukaten Geronimo. Garai hartan euskaldunek zuten bizi-ezina- ren berri ematen du. Potosin zinegotzi izana, Siporon bizi izan zen gero, etxaldean. Lurrari eskainia zen. Laborantza zen haren egitekoa. Egun batez, bikuñatarrek harrapatu eta makilaka garbitu zuten, eliza barruan. Hogei lagunek parte hartu omen zuten hilketan... Izan nintzen Siptoron. Etxaldea da, eta zilar-zerroa ere bai. Ikusita nago han zilar gaia chotzeko makineria. Nola ekartzen zuten ura eta.

Kofradiaren asmo eta eginak aztertu dituzu liburuan. Euskaldunok Potosin izan dugun presentziaren isla ere bada zure lana. Bateko eliza, besteko komentua; kapera hemen, hillobiak han...

Gaur egun ez dira hillobiak besterik geratzen. Ez eliza, ez komentu, ez kapera...

Eta zenbait margolan...

Eta zenbait margolan.

Gaspar Berriok egindakoa, garrantzizkoena.

Inportantzia handia du, nire ustez. Gaspar Berrio han jaio tako euskalduna izan zen. Eta, seguru asko, Berrio margolariak berak bazekien euskaraz. Ama birjinaren margolanean ageri diren hitzek horixe eman digute aditzera: “Nere biotza”, “Nere laztana”, “Nere lorea”, eta “Arantzan zu”. Gainera, garai hartan, Potosin, euskaldunen artean euskaraz egiten zen. Hori ageri da eskuizkribuetan. Batzuetan, erdaldunek uler ez zezaten erabiltzen zuten euskara.

Askotan egin izan dugu hori euskaldunok...

Guk bakarrik ez! Txinatarrek ere halaxe egiten omen dute. Herri guztietan gertatu da hori. Uste dut.

Gaspar Berrio.

Garai hartako historialariak ematen digu Berrioren albiste. *Historia de la Villa Imperial de Potosí* idatzi zuen Arzans de Orsua y Belak. Hiru tomo handi. Arzans de Orsua, Berriok hogeita hamar urte zituela hil zen. Oso litekeena da historialariak eta margolariak elkar ezagutu izana. Arzanssek asko hitz egiten du Berriori buruz. Hiru tomo horietan, behin eta berriz jotzen du Berrio aipatzera. Nola-koa zen, zeinekin ikasi zuen, San Frantzisko-



Potosiren amaiera

ko komentua gora, Arantzazuko ama birjina-
ren irudia behera... Boliviaren historian
bigarren margolaririk inportanteena da
Berrio. Holguin lehenengo, Berrio ondoren.

**Interesgarria iruditu zait liburuan kontatu
duzun Potosi.**

Niri halaxe iruditzen zait, oso interesgarria!

Noiz hasi zinen gaia ikertzen ez dakit...

Hara joan berritan, orain dela berrogeitaka
urte. 1961ean. Hemendik bi fraide joan ginen
Copacabanara: Guarrotxena –Artigoitikoa–,
eta biok. Copacabanako frantziskotarren
santutegian geundela, hara joan eta urte erdi-
ra, biltzar eukaristikoa omen zen Santa Kru-
zen, beste herri batean. Etxe guztietara bidali
zuten gonbita, joateko eta joateko, eta gurera
ere etorri zen deia. Ez dakit norik erabaki
zuen, baina ni Santa Kruzera joan behar
zenetan izan nintzen. Bost lagun joan ginen,
bostak euskaldunak.

**Hori da orduan! Izan ere, liburuan irakurri eta
barrunda ezinik izan naiz. “Aspaldi batean
Potositik pasadizoan nintzela, Arantzazuko
Andre Mariaren irudia ikusteko okasioa izan
nuen”. Pasadizoan!**

Dena kontatzea ere luze izango zen. Gainera,
Anastasiok, anaiak, esan zidan lana labur eta
zehatz egiteko. Bestela, mila orritik gorako

**“Potosiko zilarrak ez
du erabat hondoa jo.
Ez dakit zein propor-
tziotan, baina oraindik
ere ateratzen dute
zilarra han. Indioak ari
dira lanean, garai
batean bezala. Seku-
lakoak egin dizkiete
indioei. Nik oso infor-
me txikiak ematen
ditut nire lanean,
baina indioen txikizioa
beldurgarria izan da,
bai Bolivian eta bai
Peru Garaian, azukrea
ateratzen zen ingu-
ruan. Indioek dena
galdu zuten: lurra,
beren nortasuna,
familia... Meategie-
tan lanean ari zire-
nean ere nahikoa zen
aitzakia txiki bat haiek
lanetik kanporatzeko.
Indioak bizi dira, baina
ez dakit nola”.**

liburua egingo nuen. Anastasiok betiere
ezetz: “Ez, egin ezak ximple-ximple, labur-
labur”. Gauza handia egiteko adina material
nuen, baina ez da komeni, ez jendearentzat,
eta ez niretzat.

**Anastasio Esnaola. Zure anaia zenaren ahol-
kua, beraz. Hura idazlea izan!**

Bai. “Han gaia bazegok!”, nik, eta berak,
“Egin ezak labur!”. Horixe esan zidan.

**“San Frantziskoko eliza eder bezain bikainaren
balio historiko-artistikoak agertu zizkigun
gidatzen gintuen bertako fraide batek eta
azkenean korupeko zoko ilun batean zegoen
Arantzazuko Andre Mariaren irudia ere bai.
Hauts eta armiarma sare ez estalia zegoen iru-
dia...”.**

Biltzar eukaristiko hura bukatu eta baten
batek esan zuen: “Eta, zuzenean itzuli beha-
rrean, zergatik ez bazterrak ikusiz itzuli?
Sucre, Potosi...”. Eta “A, bai, konforme!”.
Horrelaxe egin genuen. Potosira iritsi eta,
frantziskotarren komentu ederra ikusi eta!,
eliza ederra eta! Halako batean, zoko-zokoan,
armiarma eta zikina eta, Guarrotxena hura:
“Hau arantza enborra da! Arantzazuko ama
birjina dugul!”. Txundituta geratu nintzen,
zirrara sentitu nuen, nik ez bainekien historia
horretaz ezer ere. Orduantxe hasi zitzaidan
nire buruan gogo hori, datuak biltzekoa eta.

AZKEN HITZA

Isuria

“Odol isuria izan nuen burmuinean orain dela hamazazpi urte. Erabat jota egon nintzen, erabat! Ez nuen uste bizirik irtengo nintzenik ere. Baina poliki-poliki... Anaiak asko lagundu zidan, Anastasiok, animoak emanez eta. Geratu nintzen moduan geratuta, ibiltzea komeni zitzaidan, eta asko ibili naiz mendian. Gorputza askatzeko, batez ere. Medikuak ere esan zidan: ‘Ez gehiegi nekatu, nekea txarra da zuk izan duzun gaitzarentzat!’. Eskola ematen ari nintzela gertatu zitzaidan, Herri Ametsa ikastolan. Gogoan dut Joxe Mari Iturraldearen gazte-liburu baten izenburua idazten ari nintzela arbelean, eta ondoeza sentitu nuen, eta eseri nintzen... Ezinean, ikasleei esan nien: ‘Lagundu zaidazue’. Eta berehala etorri zitzaizkidan hiru-lau. Abisu ere eman zuten eta ospitalera. Nire borondatearen indarrez irten al nintzen aurrera galdetzen duzu? Eeezz. Suertez!”

Harrezkero, Copacabanan nengoela, bi edo hiru aldiz Potosira joan nintzen oporretan, ez gustuz, han inguru hotza da eta, oso hotza, gero! 4.000 metrotik gora da hura...

1961ean izandako zirrara hari tiraka argitaratu duzu liburua gabon aurretik. Berrogeita hamar urte joan dira bien artean.

Bai, bai, baina ez naiz propio horretan jardun nire denbora guztian. Pertsona guztiak dute halako ideia bat, gutxi-asko lantzen dutena, eta niri hauxe egokitu zait. Gainera, nire kasuan, 2005ean Arantzazuko bosgarren mendeurrena ospatzea izan zen tartean. Horrek argia eman zidan, berriz ere gaiari heldu eta Arantzazuri buruz nekiena, Potosiko Arantzazu, paperean jartzeko. Gainerakoan, esan dizut, Anastasio. Hari esan eta, “egin ezak! Badakik, hemen goian daudenek agintzen ditek. Gureak ez dik askorik balioko, baina egiten baduk, horrek balio dik!”. Idatzitakoa hari irakurtzen utzi, hark zuzenketa-aren bat edo beste egin... Horrela etorri zen liburua. Jende askok lagundu dit nire lana egiten eta eskertuta nago.

Zure lana irakurri eta Potosira joateko gogoia ematen du...

Joan hadi! Han bilatuko dituk dokumentuak, liburuan jarri ditudanak eta beste batzuk ere bai.

Euskaldunek Potosin ibilitako bideak berritzearen ari nintzen...

Horrek ez dizu poz handirik emango. Oso atzeratuta dago hura. Gu euskaldunok 1700. urtean egon gintezkeen mailan dagoela Potosi, esango nuke, oso-oso atzera. Liburuan jarri ditudan etxeak bai, dotoreak, baina gainerakoan... Hango kaleak eta... ■

Artxibo lana

“Ikaragarritzko lana egin nuen dokumentuak aztertzen Potosiko artxiboan. Hotza pasa ere bai. Hamaika eskuizkribu aztertu nituen, galdutakoak gehiago dira baina. Dena dela, artxiboko lana oso neketsua da, zaila, eta pozik ematen ez duena. Neure interesa besterik ez zen. Inork ez zuen egina lan hau orain arte. ‘Hor badago lan bat egin beharrekoa!’, esaten zuten, baina inork ez zuen egiten! Neu izan naiz lehena. Oso lan txikia egin dut, Boliviako historiarentzat askorik balio ez duena, baina guretzat, euskaldunontzat, balio duela iruditzen zait”.

www.nafarroakoakapelketa.com

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

08

1. finalaurrekoa
Otsailak 16
Iruñea (Txantrea)
Ama Salestarren aretoa
18etan

Erika Lagoma

Julen Zelaieta

Oier Lakuntza

Bittor Elizagaien

Kanporaketako bertsolari bat

Kanporaketako bertsolari bat

ARGIA

2008ko otsailaren 17a